

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin betiko onarpena ematea administrazio batzarretan hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta ezabatzeko zerbitzuaren tasaren 2017ko bigarren hiruhilekoko eroldari

Nik, Josune Irabien Marigortak, Araban dagoen Amurrioko Udaleko alkate naizen honek,
Jakinarazten dut:

Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko irailaren 14an egindako bilkuran erabaki zuen behin-behineko onarpena ematea administrazio batzarretan hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzuaren 2017ko bigarren hiruhilekoko tasa ordaindu behar dutenen eroldari (espedientea: 17164C2271), eta erabaki horren berri 2017ko urriaren 4ko ALHAOn (114. zenbakia) eman zen. Erabaki horren aurka inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin-behineko erabaki hori behin betiko bihurtzen da, eta jendaurrean jartzen da, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergei buruzkoak, 98.3 artikuluan xedatutakoak betetzeko.

2017ko azaroaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko egun baliodunetan (biak barne) ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, administrazio batzarretan hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzuari dagozkion 2017ko bigarren hiruhilekoko tasak.

Tasa hori ordaindu behar dutenek zerga zorra udaletxean dagoen dirubilketa bulegoan ordaindu ahal izango dute, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara, adierazi den epean.

Epe hori igarotakoan, ordaindu gabeko kuotak kobratzeko premiamenduko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera, eta kobratu beharrekoari ehuneko 20ra arteko errekar-gua aplikatuko zaio, indarrean dagoen Zerga bilketarako araudi Orokorrean ezarritako xedape-nekin bat etorriz; errekar-gu hori eta luzapenarena bateragarriak dira.

Hori guztia jakitera ematen da jende orok jakin dezan.

Amurrio, 2017ko urriaren 27a

Alkatea

JOSUNE IRABIEN MARIGORTA